



## **VERTER RECYCLINGEN KOMUNIKATUA, ZABORTEGIKO LUIZIA GERTATU ETA URTEBETERA**

*Zaldibar, 2021eko otsailaren 5a.*- Zabortegiko luizia gertatu eta urtea bete den honetan, enpresak adierazi nahi du, lehenik eta behin, min handia eragiten digula Alberto Sololuce eta Joaquín Beltrán gure lankideen heriotzak, eta oso atsekabetuta gaudela ingurunean izandako eragin kaltegarriengatik.

Gaur ere, enpresaren lehentasun nagusia Eusko Jaurlaritzaren lantaldeekin elkarlanean aritzea da, Joaquín Beltránen gorpua bilatu eta berreskuratzeko.

Istripua gertatu zen une beretik, enpresaren konpromisoa izan da erakunde eskudunekin elkarlanean aritzea. Horrelaxe lortu zuten Alberto berreskuratzea, eta gaur ere lanean jarraitzen dute Joaquínen gorpua aurkitzeko eta eremua egonkortzeko. Ordutik, enpresak lanean jarraitu du, eta instalazioen eta zabortegiaren portaeraren inguruan dituen ezagutza guztiak eskaini ditu. Horretarako, istripua gertatu ondoren aditu talde bat kontratatu zuen, eta horiek lanean ari dira ordutik egoera kudeatzeko eratu zen batzordeko kide gisa, erakundeetako teknikariek batera.

Verter Recycling, Eusko Jaurlaritzarekin koordinatuta, lanean aritu da zabortegiko hondakinak jasotzeko segurtasun-itxitura handitzeko. Horrela, bertara eraman daiteke Joaquín Beltrán bilatzeko lanetan ateratzen den materiala. Itxiturak handitzeko lan horiek Verter Recyclingek egin ditu, eta helburu nagusia da gordailu bat izatea bertan hondakinak segurtasunez jaso ahal izateko eta, horrela, bilaketa-lanekin jarraitu ahal izatea. Horrela, Verter Recyclingek erakutsi du erabateko konpromisoa duela uneotako helburu nagusiarekin, hau da, Joaquín Beltránen gorpua berreskuratzearekin, eta, aldi berean, zabortegiko luiziak eta eragindako kalteak konpontzen eta eremua egonkortzen laguntzen da.

Bestalde, luizia eragin zuten arrazoiak argitzen laguntzeko eta eragindako kaltearen garrantzia teknikoki ebaluatzeko, enpresak zenbait txosten egiteko eskatu dio aditu-talde bati, istripuaren kausa posibleei buruz eta eragindako kaltearen garrantziari buruz. Talde horretan geologoak, biologoak, ingeniariak eta ingurumen-zientziekin lotutako bestelako espezialistak daude, eta guztiak dute ibilbide profesional luzea eta frogatua. Istripua gertatu zenetik egon dira lanean aditu horiek, konplexutasun handiko egiteko batean. Horretarako, azterketa zorrotzak eta lekuan bertan egindako analisisen azterlan xehatuak egin behar izan dituzte. Lan horren emaitzei esker, gertatutakoa argitu ahal izango dugu.

Verter Recyclingek, jarduera-urte hauetan guztietan, hala zegokionean bidali dizkio jakinarazpenak Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Sailari, jarduera hori antolatzeko araudiak ezartzen dituen prozeduren arabera. Era berean, agintaritza eskudunak berak publikoki adierazi du, eremua egonkortzeko lanen kontrola bere gain hartu ostean, zabortegian zeuden hondakin guztiak baimendutako hondakinak zirela.

Azken urteotan, Verter Recycling hasia zen tokiko eta ingurumeneko erakundeekin izapideak egiten, hondakinak birziklatu eta balioztatzeko proiektuak aurrera eramateko, hondakinak kudeatzeko jardueraren osagarri gisa. Horrela, enpresak ekonomia zirkularrarekin lotutako

ekimenen alde egin nahi zuen, hondakinen arloko jasagarritasunari lotutako egungo kontzeptuen arabera lan-ildoak abiarazita.

Amaitzeko, enpresak adierazi behar du beharrezko ahalegin guztiak egiteko borondatea duela aurrean dugun lanari dagokionez, eta, aldi berean, espero duela gaiaren inguruan egiten diren ikerketa guztiak behar besteko zorrotasunez egitea, hau da, ingurumen-araudiak zehaztutako prozeduren arabera.

Verter Recyclingek eskerrak eman nahi dizkie erreskate-taldeko kide guztiei, euren ahalegin eta prestasun nekaezinarengatik; lan zaila, konplexua eta korapilatsua egiten ari dira, eremua egokitu eta behar diren segurtasun-baldintzak ezartzeko.

Verter Recycling enpresaren onlineko oharra: [www.verter.eus](http://www.verter.eus)

*Informazioa: Arturo Zubiaga*

*Tel.: 94 415 86 42*